

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 582/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onestea INDESA 2010 SL sozietateko zuzendari-kudeatzailea izendatzeko proposamena

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Egoki jotzen da Arabako Foru Aldundiak zuzenean edo zeharka parte hartzen duen sozietate publikoetako kudeaketa eta administrazio organoei proposatzea Administrazio Kontseiluaren eta, zehazki, sozietateetako zuzendaritza-kudeatzailearen zer kide edo zer kontseilari eskuorde kendu eta nor izendatu.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Indesa 2010 S. L sozietatearen kudeaketa eta administrazio organoetako kontseilari proposatzea (Foru Administrazioaren partaidetzako Erakundearen Erregistroko 312. Zenbakia) Jose Luis Alonso Quilchano izendatzea zuzendari-kudeatzaile.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik aurrera izango du indarra, Arabako Lurralde Historikoaren ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN